

Lan Osasun eta Segurtasun Batzordea - 2016-02-25

Bilera berezia izango zela jakin bagenekien, Bilboko Instrukzioko 8 zk.ko Epaitegian Justizia Sailak behartu dituen lekualdatzeak direla eta, gai zerrendan agertzen ez bazen ere.

Pasa den ostiralean oharra bidali genizuen jakinaraziz mobilizazioak proposatuko genituela, sailaren jarrera ikusita. Hartutako erabakia berraztertzeke inolako asmorik ez du, eta hori gutxi balitz, "geroari begira horrelako neurririk protokolizatzea, sindikatuen parte hartzearekin" aipatu zuen. Laster esango dizuegu prestatu duguna Justizia Sailaren abuso honi aurre egiteko.

Jorratu genituen beste gaiak, hona hemen:

- **Bilboko Instrukzio epaitegietako arrisku psikosozialen ebaluazioa.** Aurreikusten erreza zen: ez zen burutuko metodoak exijitzen duen parte hartzearen %60. Justizia Administrazioari ohararazia genion: aspaldiegitik dauden instalazioetako baldintza negargarriek; sailak hartzen dituen erabaki bidegabeek; guardia epaitegian haiei ezer galdetu gabe egin dituzten obrek... sortutako atsekabeaz gain, Instrukzio 8an administrazioak izan duen jokabideak ustezko asmo onetaz langileak gero eta sinesgaitzago bihurtu dituzte.
- **Durangoko klimatizazio sistema.** Sailaren esanetan, eskabidea egin ostean bertako udalak beharrezko obra-lizentziak noiz emango zain daude. Kontu hau oso kezagarria da 2013tik hona ez baitiote irtenbiderik jarri. Merezi dituen xehetasun guztiekin informatuko du laster LABek ohar baten bitartez.
- **Donostiako eraikineko iparraldera ematen duen horman filtrazioak.** Sailak dio soluzio zaileko arazoa dela, ez dela batere erreza topatzea nondik sartzen den ura. Urteak dituen kontua dugu hau; eraikitze garaiko akatsa bada ere ez zuten konpondu eraikinaren bermealdia agortu aurretik.
- **Tolosan egindako neurketak.** Eginda omen daude eta emaitzak emango dizkigute. Azkenaldian Prebentzio Zerbitzuari ahazten zaio guri jakinaraztea noiz egin behar dituzten bisitaldiak epaitegietan; hortaz, ezin izan gara joan nahi genituen hainbat lekutara. Beste kontu bat: egiten diren txosten teknikoak, oro har, ez dizkigute ematen eta eskean ibili beharra daukagu.
- **Bilboko guardia epaitegian egindako obrak.** Azkenean, zuzendariak onartu du gaizki jokatu dutela prebentzio delegatuei ez jakinaraztean obrak hasi aurretik eta epaileen eskariak besterik ez aintzat hartzean. Orain dio, hobetzeko asmoz, proposamenak aztertzeke prest dagoela. Jon Uriarte zintzo ari ote den gaude, ez baita lehen aldia horrelakorik gertatzen dena; abendutik ez digu eman azalpenik zuzendariak. Eta, azken batez, nahi izan dutena egin dute, langileen iritzia zein den jakin nahi izan gabe, guardia epaitegian denbora gehien ematen dutenak haiek izan arren.
- **Azterketa medikoetara joateko ordutegia.** LABek jakinarazi zion Prebentzio Zerbitzuari langile batzuk kezu zirela hitzordua 09:30etik aurrera ematen zirela. Mutualiako arduradunari esan omen diote hemendik aurrera ordutegi tarte osoa esaintzeko (07:30etik 10:00etara).
- **Donostiako Zigor-arloko Izapidetze eta Betearazpen bulegoa.** Berriro eskatu genuen argitzeko zer aurrikuspen duen sailak bulego horretako baldintzetarako. Erantzuna, betikoa: HITZIK EZ. Bien bitartean, langileak pilatuta eta espediente-metak nonahi, bero sapa... Eta solairu berean bulego batzuk bete gabe!
- **Jakinarazpen telematikoak.** Ezarri nahi duten sistema berriak dituen akatsak mahairatu zituen LABek. Langileen eta proiektuaren arduradunen artean ez dago komunikaziorako berehalako bide artezik. Horrek dakartza: lan-zama handitzea, baliabide material falta eta langileak urduri egotea. Horiek horrela, foro egokia eskatzen dugu hutsune teknikoak, materialak eta langileen

ekarpenak aztertu ahal izateko, horiexek baitira benetan zer gertatzen den dakitenak. HOBETZE BATZORDE moduko bat, baina jakinarazpen telematikoetarako bakarrik.

- **Donostian gertatutako telefono matxura.** Gertakari honi buruz eskatu genuen informazioa. Matxurak, hiritarrei eta langileriarri egun batzuetan zehar eragin arren, bakarrik ohar labur bat argitaratu zuten intraneten. LABek iradoki zuen beste behin kasu hauetan INFORMAZIOA LANGILIERIARENTZAT ZEIN HIRITARRENTZAT PREMIAZKOA DELA arazo larriagoak ekiditzeko.
- **Lasarteko bake epaitegian pozoitzea.** epaitegi honetako hiru langileei gertatutakoaren ostean, LABek planteatu du delegatuei gertakari larrienak jakinarazteko berehalako bide zuzen bat beharrezkoa dela. Prebentzio Zerbitzuak arrisku hauen aurrean nola jokatu behar dugun dokumentu bat landuko du. Langile hauek bizitako babesgabetasuna salatzen dugu, mutuak ez zuelako langile horietako baten kasua lan istripu bezala aintzakotzat hartu eta Osakidetzara deribatu zuen.
- **Haurrentzako aldalekuak komunetan jartzea.** Sailak LABeko proposamena aztertuko duela erantzun zuen. Berrito eskatu genuen ere edoskitzerako guneak, beharrezkoak dira eta.
- **Hotza zein itoginak Getxoko eraikinean.** 2. Epai Aretoan egoten den hotzari dagokionez, Prebentzio Zerbitzuak instalazioa gaizki diseinaturik dagoela aitortzen du, eta hortaz, dagokion obrari ekin diezaiotela eskatu egingo du (eraikuntzari loturiko beste akats bat; zeina “a escote” ordaindu beharko da, garantía iraungi egin da eta). Garantian badagoena da eraikin zaharreko girote-sistemaren konpresore bat; antza, enpresaren atzetik dabilta, eroarena egiten dabilela dirudi eta. Itoginei dagokienez, Prebentzio Zerbitzuak ura nondik iragazten den jakiteko hainbat ekintza burutu direla komunikatu du, baina jatorria non dagoen ez dute detektatu. Dirudienez, otsailaren 19an berrikuste bat egin zen, eta euria noiz egingo zain geratu ziren.
- **Jazarpen protokoloa eta pertsonen arteko gatatzak.** Protokoloa aldatu behar dela onartzen dute, LABek bi epaileren kontra jarritako salaketak (dakizuenez, BJKNera igorri dituzte dagokion disziplina neurrirako) eta bulego judizialeko buruak sartuta dauden beste kasu batzuk ere direla eta. Baina ikusi beharko da nolako aldaketak izango diren horiek, benetako arazoa konpontzea hain erreza ez dela badakigulako. Eusko Jularitzak askotan esan duenez, arazoaren parte bat (epaileak, fiskalak eta idazkariak) ez da sartzan haien kompetentzietan. Prebentzio teknikariak dio, Justizia Ministerioko eta BJKNeko prebentzio zerbitzuekin harremanetan dagoela, baina gure ustez gaiari heltzeko gogo handirik ez zaie somatzen.

LABek behin eta berrito eskatu duenez, premiazkoa da eztabaida leku bat sortzea non Justizia Administrazioiko kolektibo guztiok lan osasunari buruzko gaiak amankomunean jorratu ahal izango ditugu. Hau guztia baita Ana Aguirre Sailburuordeari proposatu geniona ere, Lakuan agertu ginenean Bilboko Instrukzio 8ko lekualdatzeren kontra gure ukatzea mahaigaineratu genionean.

Beste behin ere ikusi dugu nola Sailak arazoaren zailtasuna aitzaki moduan erabiltzen duen (diru arazoak argudiatzen ez dituenean), prebentzio delegatuek esandako arazoei konponbide eraginkorrak bilatu beharrean. Proposatutako gai guztiak gure eguneroko zereginetan, beraz, gure osasunean eragina daukate. Gainera, Prebentzio Zerbitzua, LABek askotan salatu duenez, lan gainezka dago teknikari falta dela eta; behar den baino teknikari eta behargin gutxiago ditu; Sailak baliabideak jarri behar ditu eraginkorra izatea nahi izatekotan, behintzat. Hori guztia dela-eta, ekin ez dioten kontuak eta etorriko diren berriak konpontzeko esaten jarraituko dugu, eta dugu onartuko ez aitzakiarik, ezta inora ez doan justifikaziorik.

2016-03-03

- ARABA: Leila Martin (945004919)
- BIZKAIA: Elena Cea (944016525)
- GIPUZKOA: Begoña Gartzia (943004361)

GURE ORDEZKARIAK